
IZADIA, EUSKERA ETA GIZONA

ITXASOA

Aurraldian daukagu
ikusgarri bikaiña
beren egoetan,
luzez ta zabalez
neurgabe dirudi
edertasunetan.

Margo ederrik ba-da
sortu diran gauzetan,
bat ur aunditan da,
begiak artu-alan
dizdizera ederra
itxasoan ager da.

Apainduriz onduta
dagersku itxaso
beraren ertzetan,
mendi zoragarriak
pozez, begira daukaz
egal guztietan.

Oi, erri maitaleak,
gogoz, begira daukaz
urdintasunera,
itxasoak daneri
agur biotzekoa
bialtzen lurrera.

Ta zu, Bermeo maite,
itxastar seme zara
bizitz ederrean,
zure arnas bizia
urdin ta ederra da
uraren aurrean.

Bermeo zoragarri,
arrain kabia zara
itxas urdiñean,
seme argiak dozuz
lan bikaiñak egiñez
irxas ederrean.

GERIZPEA

Zerua urdin urdin,
ixillean itz dagi
edertasunagaz,
jakituria dauka
goi alde guztiak
beren edertasunagaz.

Bei zuri ta gorriak,
atsegiñez, dabilnaz
larra ugarian,
zelai dana ederrez
jantzi dau eguzkiak
udalen gozian.

Aritz zoragarria,
dizdizera ederrez,
zutik dago goizez,
gerizpe maite-miña
atsegiña opaka
zoriontasunez.

MENDI GAIÑA

Makillak lagundurik
ba-doa gizon piña
mendi goi aldera,
oi, zein eder dan MAXA
euskaldun lur artean
goitik eta bera.

Gizona arrituta
mendiaren ederrez
zoramen bizian,
ederren zein ete dan
maiteki orniturik
gain danen artian.

Euskaldun gain ederrak
alkar begira dagoz
maitasun onian,
gora mendi gain dana
Egillea ospatuz
arnasa garbian.

EUSKERA

Izkuntz zoragarria
buruz-biotzez zara
ezilkor bizian,
ederra zara itzez
mamin guriz beterik
izate guztian.

Seme-alaba onak
bikainduten zaitue
zure sormenean,
erria ta izkuntza
biak batera datoz
edertasunean.

Baserri ta lantegi
gogoz batera dabiltz
jakintzaz beterik,
izkuntza bikaiñena
Laukariz lur gaiñean
urrezko soturik.

NERE MAITALEA

Oi, gizon zentzunduna
jakintzaz apaindua
edertasunean,
tokirik ederrenak
gogoz, maite dituzu
nortasun duiñean.

Buru eta biotzez
ondo, ornidu zagoz
giza seme legez,
zuzentasuna dozu
zure asmo bikaiña
bizitza ederrez.

Buru goiko argia
biotz laguntasunaz
da zure gidari,
zure almen jatorrak,
egiz, biur zaitue
gizon maitegarri.

PAULIN